

IRAGARKIA

205. ALDIZKARIA - 2023ko urriaren 2a

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.7. BESTELAKOAK

372/2023 EBAZPENA, irailaren 19koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzetako ziurtapen probak egiteko matrikula librerako deialdia eta egutegia ezartzen dituen 2023-2024 ikasturterako.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren helburua da ikasleak gaitzea hizkuntzak modu egokian erabiltzeko hezkuntza sistemaren ohiko etapetatik kanpo. Hori helburu, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzak hiru mailatan antolatzen ditu: oinarrizkoa, tartekoa eta aurreratua.

Abuztuaren 29ko 68/2018 Foru Dekretua onetsita, zeinaren bidez oinarrizko mailaren, tarteko mailaren eta maila aurreratuaren curriculumak ezarri baitziren Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzetarako (2/2006 Lege hori, gero, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatu zen), ezarrita dago maila horien curriculumak Nafarroako Foru Komunitatean, betiere abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuak xedatzen dituen gutxieneko ebaluazio alderdietatik abiatuta.

Foru dekretu horren 5. artikuluan (Ziurtagiriak) hau ezartzen da:

1. Oinarrizko A2 mailaren ziurtagiria lortzen ahal da azken proba berariazko bat gaindituz edo etengabeko ebaluazioaren bitartez modalitate ofizialean.
2. Tarteko B1 mailaren, Tarteko B2 mailaren, C1 Maila Aurreratuaren eta C2 Maila Aurreratuaren ziurtagiria lortzeko, kasuan kasuko hizkuntzaren maila bakoitzerako azken proba berariazko bat gainditu beharko da.
3. Aurreko paragrafoetan aipatutako probak Hezkuntza Departamentuak arautuko ditu, kasuko mailarako eta hizkuntzarako curriculumetan ezarritako gaitasunak erreferentzia harturik.
4. Artikulu honen 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako mailen ziurtagiria lortzeko, urtean deialdi bat egingen da gutxienez. Hizkuntza bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik, zilegi izanen da hizkuntza batzuetan ez egitea maila guztietako proben deialdia.
5. Hezkuntza administrazioek erraztasunak jarriko dituzte proba homologatuak egiteko, horien bidez ikasleek lor dezaten Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan ikasitako hizkuntzen

ezagutzaren gaineko ziurtagiri ofiziala.

Ekainaren 15eko 238/2023 Ebazpenak, zeinaren bidez Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen antolaketa eta jarduna 2023-2024 ikasturtean arautzeko jarraibideak onetsi baitziren, IV.6 puntuan ezartzen du ezen, maila bakoitzaren ziurtagiriak lortzeko, ikasle libreek inskripzioa egin beharko dutela Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen modu, baldintza eta egunetan.

Hortaz, bidezkoa da araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzetako ziurtapen probak egiteko deialdi librea eta egutegia ezartzea 2023-2024 ikasturterako.

Bat etorri ezarrita dagoenarekin Hezkuntza Departamentuko oinarrizko egitura ezartzen duen abuztuaren 30eko 67/2023 Foru Dekretuaren artikulua bakarrean, eta Hezkuntza Departamentuko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz.

EBAZTEN DUT:

1. Onestea, Nafarroako Foru Komunitaterako, araubide bereziko hizkuntza irakaskuntzetako ziurtapen probak egiteko matrikula librerako deialdia eta egutegia, 2023-2024 ikasturtekoak, ebazpen honen 1., 2. eta 3. eranskinetan jasota dagoen moduan.

2. Ebazpen hau eta haren eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Ebazpen hau eta eranskinak igortzea Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzura, Ikasketak Antolatzeko Atalera, Atzerriko Hizkuntzen Atalera eta Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetara, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, 2023ko irailaren 19an.—Hezkuntzako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

1. ERANSKINA.—NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO SARRERA LIBREKO 2024KO PROBAK EGITEKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

1. Iragarritako probak eta haien ezaugarriak.

1.1. 2024. urteari begira, Nafarroako hizkuntza eskola ofizialek sarrera libreko probetarako deialdia egiten dute, ebazpen honetako 2. eranskinean ezartzen diren hizkuntzen, mailen eta egutegiaren arabera.

1.2. Azterketa proben egitura izangaietzako indarreko zehaztapenetan ezarritakoa izanen da.

1.3. Maila bakoitzeko ziurtapen probak aldi berean administratuko dira deialdi bakarrean, bai ikasle ofizialentzat, baita libreentzat ere, ahozko adierazpenaren proba izan ezik, hura egiteko dagokion egutegia ezarriko baita.

1.4. Matrikula librea formalizatzeko, ezinbesteko baldintza da hamasei urte izatea edo 2024an betetzea. Era berean, 2024ko abenduaren 31n hamalau urte baino gehiago dituztenek matrikulatzen ahalko dira derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasitako lehen hizkuntza ez den beste hizkuntza batean proba egiteko.

1.5. Ikasle libreek bi deialdi izanen dituzte dagokien maila gainditzeko. Probak maiatzean eta ekainean eginen dira, deialdi arruntean, eta irailean deialdi berezian, eta 2. eranskinean ageri den egutegiari jarraikiz banatuko dira.

1.6. Azterketak egin baino lehen, Nafarroako hizkuntza eskola ofizialek beren web-orrietan argitaratuko dituzte ziurtapen probetarako izangaiantzako deialdiak, probak zer tokitan, zer egunetan eta ordutan izanen diren adierazita.

1.7. Zentro batek hizkuntza eta maila baterako duen edukiera gainditzen badu izangaien kopuruak, hainbat azterketa-egoitza erabiltzen ahalko dira idatzizko zein ahozko proba egiteko. Kasu horietan, eskolek garaiz-garaiz argitaratuko dute zer azterketa-egoitzatan eta ordutan egin beharko duen proba izangai bakoitzak.

1.8. Antolaketa arrazoiengatik, NUHEOko testu idatzien produkzioko eta koprodukzioko eta idatzizko bitartekotzako proba batzuk, ingelesezkoak eta euskarazkoak, lehenago egiten ahalko dira, egutegian adierazten den moduan (2. eranskina).

2. Matrikula librea euskararako eta ingeleserako.

2.1. Aurreko urteetan euskaran eta ingelesean matrikula libre asko egin izan direnez gero, eta dauden baliabideak era egokian baliatu ahal izateko, Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetan aurreinskripzioa online egiteko epe bakar bat irekiko da.

2.2. Ziurtapen proba libreak egin nahi dituzten izangaiak hizkuntza bakoitzeko aurreinskripzio bat egin behar dute, zer mailalara aurkeztu nahi duten adierazita. Hizkuntza bakoitzean maila batean matrikulatzea baizik ez da onartuko. Halere, ikastaroetako ikasleek, ziurtagiririk gabe igotzen badira mailaz, matrikula librea egiten ahal dute aurreko kurtsoko ziurtapen proba egiteko, beren kurtsoko ikasle ofizialaren izaera galdu gabe.

2.3. Aurreinskripzioa eginen da, bakarrik, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen web-orrietan horretarako berariaz egonen den estekaren bidez, 2024ko otsailaren 12tik 27ra arte, biak barne.

2.4. Aurreinskripzioan, izangaiak bere datu pertsonalak, hizkuntza eta egin nahi duen maila adieraziko ditu, baita lehentasunez zer eskolatan egin nahi dituen ziurtapen probak ere. Aurreinskripzioa bukatuta, eskaera bakoitzak bere erreferentzia zenbakia izanen du. Aurreinskripzioan ematen diren datuak matrikula egitean baieztatuko dira, eta zinpeko aitorenaren izaera izanen dute.

2.5. Euskararen eta ingelesaren matrikula libreak banatzeko asmoz, ondoren aipatzen diren irizpideen arabera baremo bat ezarriko da. Irizpideak ez dira metatuko eta matrikula egitean ziurtatu beharko dira:

Ikus taula osoa

IRIZPIDEA	PT
-----------	----

-Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe ez-unibertsitarioetako irakasleak, jardunean daudenak.	2
-Nahi den aukera egiteko eskatutako eskolaren eragin eremuan bizi direnak.	2
-Nafarroan bizi arren, lehen aukera moduan eskatu den eskolaren eragin eremutik kanpo bizi direnak.	1
-Nafarroan bizi ez direnak.	0

Baremo honetan balio duten ziurtagiriak izanen dira 3.4 puntuan adierazitakoak.

2.6. HEO bakoitzaren eragin eremua.

Hiru eremu ezarri dira, hiru azterketa-zentroei lotuta (Lizarra, Iruña eta Tuter). Aurreinskripzioa egitean eremu bat aukeratu behar da, eta esan behar da, halaber, beste zentro batean matrikulatzeko aukera izan nahi den edo ez, baldin eta ez bada lortzen matrikulatzea lehen aukeratu den zentroan. Zentro bakoitzaren eragin eremuaren barruko udalen zerrenda ebazpen honen 3. eranskinean argitaratzen da.

2.7. Zentroa zozkatzea eta esleitzea.

–Aurreinskripzioa egiteko epea amaitu eta gero, izangai bakoitzari zentro bat esleituko zaio, kontuan hartuta zentroek erabilgarri dituzten giza baliabideak eta espazioak.

–Zentroa esleitzeko, aurreinskripzioa erregistratu den sistema informatikoak ausaz aterako du zenbaki bat hizkuntza bakoitzeko, eta zenbaki horretatik abiatu esleituko da ikasleen matrikulazio-zentroa, probak egiteko, kontuan harturik 2.5 puntuko baremoan lortutako puntuazioa. Zenbaki hori ateratzeko, jendaurreko ekitaldi bat eginen da, otsailaren 28an, 10:00etan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Atzerriko Hizkuntzen Atalean (Iruñeko San Domingo kalea 8). Ausazko zenbakia ateratzeko, parte hartuko dute SPEAk izendatutako pertsonak eta Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoko legelari batek.

–Otsailaren 28ko 14:30etik aurrera, eskatzaileek kontsultatzen ahalko dute zer zentro esleitu zaien, behin-behinean, matrikula egiteko. Kontsulta egiteko, aurreinskripziorako aplikazio informatikoa erabiliko dute.

–Izangaiek 2024ko martxoaren 6ko 14:30era arteko epea izanen dute behin-behineko esleipenari alegazioak egiteko. Horretarako, eskabide bat aurkeztu beharko dute, Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuari zuzendua. Norbera esleipenarekin ez dagoela konforme beste arrazoirik ez duten alegazioak ez dira onartuko.

–Behin betiko esleipenak kontsultatzen ahalko dira aurreinskripzioa egiteko erabili den aplikazio informatiko beraren bidez, 2024ko martxoaren 7an, 14:30etik aurrera.

3. Matrikula egitea.

3.1. Hizkuntza bakoitzean maila batean baizik ezin da matrikulatu.

3.2. Aleman, frantses eta italieraren ziurtapen probak egiteko matrikula librea online eta aurreinskripziozik gabe eginen da, nahi den zentroaren web-orrian, 2024ko otsailaren 19tik 26ra bitartean, bi egun horiek barne.

3.3. Aldez aurretik aurreinskripzioa egin duten izangaiek baizik ezin izanen dute matrikula egin euskararen edo ingelesaren ziurtagiriak lortzeko probak egiteko txanda librean.

–Nafarroako hizkuntza eskola ofizialek matrikulazio epe bat irekiko dute, 2024ko martxoaren 7tik 15era arte (biak barne), ingeleserako eta euskararako aurreinskripzioa egin dutenentzat.

–Aurreinskripzioa egin duen bakoitzak online matrikula egiten du eranskin honen 2.3 puntuan deskribatu den prozesuaren bidez esleitu zaion zentroan, aipatu zentroaren web-orrian argitaratutako jarraibideei segituz.

3.4. Matrikula egiteko unean, bidezkoa bada, honako agiri eskaneatu hauek aurkeztu beharko dira aplikazio informatikoaren bidez:

a) NANaren / AIZren / pasaportearen fotokopia. Ez da beharrezkoa izanen, baldin eta izangaia esleitu zaion hizkuntza eskola ofizialeko ikasle ohia bada.

b) Euskara edo ingeleserako matrikula libreetarako, erroldatze agiria, Nafarroan eta dagokion zentroaren eragin eremuaren barruan bizi dela egiaztatzeko. Ez da beharrezkoa izanen, baldin eta NANak / AIZk / pasaporteak ematen duten informazioarekin bat badator.

c) Euskara edo ingeleserako matrikula libreetarako, Nafarroako ikastetxe itundu bateko irakaslea dela ziurtatzeko, ikastetxeko zuzendariak emandako ziurtagiria. Unibertsitatez kanpoko Nafarroako sare publikoko irakasleen kasuan, ofizioz ziurtatuko da.

d) Hala badagokio, interesduna prezio publikoak osorik edo partez ordaintzetik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen dokumentua, indarreko araudiak ezartzen duen moduan.

e) Espedientea probak egiteko esleitu zaien hizkuntza eskola ofiziala ez den beste batean daukaten izangaiek espediente-lekualdaketa agiria aurkeztu beharko dute, beren espedientea dagoen hizkuntza eskola ofizialetik esleitu zaienera eramatekoa, hain zuzen.

3.5. 2023-2024 ikasturteko matrikula librea egiteko kostua apirilaren 3ko 32/2023 Foru Aginduan ezarrita dago (2023ko 106. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 22koa).

3.5.1. Ordainketa egin ezean, matrikula ez da osatutzat joko.

3.5.2. Probetara aurkezten ez diren ikasleek ez dute sartutako zenbatekoa itzultzeko eskubiderik izanen.

3.5.3. Matrikularen zenbatekoa itzuliko da, bakar-bakarrik, onartuen behin betiko zerrendak argitaratu aurretik itzulketa eskatuz gero (apirilaren 17a baino lehen).

3.6. Matrikulak onartzea.

3.6.1. Matrikula egiaztatzeko epean ikusten bada inkongruentziak daudela aurreinskripzioan eman diren datuen eta matrikula egiteko aurkezten diren agirien artean, matrikula hori deuseztatu eginen da.

3.6.2. Onartu diren eta onartu ez diren matrikulen behin-behineko zerrendak eskola bakoitzaren web-orrian argitaratuko dira apirilaren 9an, 10:00etan.

3.6.3. Behin-behineko zerrenden aurkako alegazioak apirilaren 9tik 16ra bitarte aurkeztu ahalko dira, posta elektronikoaren bidez edo aurrez aurre kasuan kasuko eskolan.

3.6.4. Onartu diren eta onartu ez diren matrikulen behin betiko zerrendak eskola bakoitzaren web-orrian argitaratuko dira apirilaren 17an, 14:30ean.

4. Ebaluazioa, kalifikazioa eta ziurtapena.

Maila bakoitzeko zehaztasunei buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz egingen dira ebaluazioa, kalifikazioa eta ziurtapena.

5. Desgaitasuna duten pertsonentzako egokitzapenak.

5.1. Behar den minusbaliotasun edo desgaitasun agiria aurkeztuz, ikasleek justifikatzen badute ziurtapen probak ohiko moduan egiterik ez dutela, behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte denbora eta baliabideen aldetik, matrikula egiten dutenean.

5.2. Minusbaliotasun maila aitortua %33koa edo handiagoa baldin bada, Hezkuntza Departamentuak bere zerbitzu pedagogikoei aholku eskatuko die, desgaitasun motaren eta mailaren arabera nolako egokitzapenak egin behar diren jakiteko.

2. ERANSKINA.–ZIURTAPEN PROBA BATERATUEN EGUTEGIA ARAUBIDE BEREZIKO HIZKUNTZA IRAKASKUNTZENTZAT, 2023-2024 IKASTURTERAKO

2023-2024 ikasturteko ziurtapen proben idatzizko ataletarako egutegi hau ezartzen da, bera eta bakarra izanen dena Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetako ikasle ofizialentzat zein libreentzat.

Ikus taula osoa

HIZKUNTZA	MAILA	ARRUNTA		BEREZIA
		2024ko maiatza / ekaina	TIPK*/IB** 2024ko apirila / maiatza NUHEO	2024ko iraila
Alemana	A2	21 / 5 (arratsaldez)		6 / 9 (goizez)
	B1	27 / 5 (arratsaldez)		6 / 9 (goizez)
	B2	27 / 5 (arratsaldez)		9 / 9 (arratsaldez)
	C1	21 / 5 (arratsaldez)		10 / 9 (arratsaldez)

Euskara	B1	31 / 5 (arratsaldez)		4 / 9 (goizez)
	B2	28 / 5 (arratsaldez)	24 / 4 (arratsaldez)	6 / 9 (arratsaldez)
	C1	22 / 5 (arratsaldez)	24 / 4 (arratsaldez)	3 / 9 (arratsaldez)
Frantsesa	A2	10 / 6 (arratsaldez) NUHEO 20 / 5 (arratsaldez)		5 / 9 (goizez)
	B1	30 / 5 (arratsaldez)		3 / 9 (goizez)
	B2	3 / 6 (arratsaldez)		2 / 9 (goizez)
	C1	22 / 5 (goizez)		5 / 9 (goizez)
Ingelesa	B1	23 / 5 (arratsaldez)	25 / 4 (arratsaldez)	2 / 9 (arratsaldez)
	B2	29 / 5 (arratsaldez)	25 / 4 (arratsaldez)	5 / 9 (arratsaldez)
	C1	24 / 5 (arratsaldez)	2 / 5 (arratsaldez)	4 / 9 (arratsaldez)
Italiera	A2	24 / 5 (goizez)		9 / 9 (goizez)
	B1	23 / 5 (goizez)		10 / 9 (goizez)
	B2	24 / 5 (goizez)		9 / 9 (goizez)
	C1	23 / 5 (goizez)		10 / 9 (goizez)
<p>* TIPK: Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa.</p> <p>* IB: Idatzizko bitartekotza.</p>				

Hizkuntza eta maila bakoitzaren ahozko adierazpenaren azterketaren deialdiko egutegiak hizkuntza eskola ofizial bakoitzaren web-orrian argitaratuko dira.

3. ERANSKINA.–UDALERRIAK, ZENTRO BAKOITZAREN ERAGIN EREMUAREN ARABERA

Ikus taula osoa

BIZILEKUA (UDALERRIA)	AZTERKETA ZENTROA
Abaigar	Lizarra
Abartzuza	Lizarra
Abaurregaina	Iruña
Abaurrepea	Iruña
Aberin	Lizarra
Ablitas	Tutera
Adios	Iruña
Aguilar Kodes	Lizarra
Oibar	Iruña
Allin	Lizarra
Allo	Lizarra
Altsasu	Iruña
Ameskoabarrena	Lizarra
Antzin	Lizarra

Andosilla	Lizarra
Antsoain	Iruña
Anue	Iruña
Añorbe	Iruña
Agoitz	Iruña
Araitz	Iruña
Arakil	Iruña
Aranaratxe	Lizarra
Aranguren	Iruña
Arano	Iruña
Arantza	Iruña
Aras	Lizarra
Arbizu	Iruña
Artzibar	Iruña
Arellano	Lizarra
Areso	Iruña
Arguedas	Tutera

Aria	Iruña
Aribe	Iruña
Armañanzas	Lizarra
Arroitz	Lizarra
Arruazu	Iruña
Artaxoa	Tutera
Artazu	Lizarra
Atetz	Iruña
Auritz	Iruña
Aiegi	Lizarra
Azagra	Lizarra
Azuelo	Lizarra
Bakaiku	Iruña
Barañain	Iruña
Barasoain	Tutera
Barbarin	Lizarra
Bargota	Lizarra

Barillas	Tutera
Basaburua	Iruña
Baztan	Iruña
Beintza-Labaien	Iruña
Beire	Tutera
Beraskoain	Iruña
Bera	Iruña
Berbintzana	Tutera
Beriain	Iruña
Berriobeiti	Iruña
Berriozar	Iruña
Bertizarana	Iruña
Betelu	Iruña
Bidaurreta	Iruña
Biurrun-Olkotz	Iruña
Buñuel	Tutera
Burgi	Iruña

Burlata	Iruña
Cabanillas	Tutera
Cabredo	Lizarra
Cadreita	Lizarra
Caparroso	Tutera
Cárcar	Lizarra
Zarrakaztelu	Tutera
Cascante	Tutera
Kaseda	Tutera
Castejón	Tutera
Gazteluberri	Iruña
Oltza Zendea	Iruña
Cintruénigo	Tutera
Zirauki	Lizarra
Ziritza	Iruña
Zizur	Iruña
Corella	Tutera

Cortes	Tutera
Desoio	Lizarra
Deikaztelu	Lizarra
Donamaria	Iruña
Doneztebe	Iruña
Etxarri	Iruña
Eguesibar	Iruña
El Busto	Lizarra
Elgorriaga	Iruña
Eneritz	Iruña
Eratsun	Iruña
Ergoiena	Iruña
Erroibar	Iruña
Eslaba	Iruña
Espartza Zaraitzu	Iruña
Esprontzeda	Lizarra
Lizarra	Lizarra

Esteribar	Iruña
Etaiu	Iruña
Etxalar	Iruña
Etxarri Aranatz	Iruña
Etxauri	Iruña
Eulate	Lizarra
Ezkabarte	Iruña
Ezkaroze	Iruña
Ezkurra	Iruña
Ezporogi	Iruña
Faltzes	Tutera
Fitero	Tutera
Fontellas	Tutera
Funes	Tutera
Fustiñana	Tutera
Galar	Iruña
Galipentzu	Iruña

Galoze	Iruña
Garaioa	Iruña
Garde	Iruña
Garinoain	Tutera
Garralda	Iruña
Genevilla	Lizarra
Goizueta	Iruña
Goñerri	Lizarra
Gorza	Iruña
Gesalatz	Lizarra
Girgillao	Lizarra
Hiriberri Aezkoa	Iruña
Uharte	Iruña
Ibargoiti	Iruña
Igantzi	Iruña
Iguzkitza	Lizarra
Imotz	Iruña

Irañeta	Iruña
Irurtzun	Iruña
Izaba	Iruña
Ituren	Iruña
Iturmendi	Iruña
Itza	Iruña
Itzagaondoa	Iruña
Itzaltzu	Iruña
Jaurrieta	Iruña
Xabier	Iruña
Txulapain	Iruña
Lakuntza	Iruña
Lana	Lizarra
Lantz	Iruña
Lapoblación	Lizarra
Larraga	Lizarra
Larragoa	Lizarra

Larraun	Iruña
Elizagorria	Lizarra
Leatxe	Iruña
Legarda	Iruña
Legaria	Lizarra
Leitza	Iruña
Lekunberri	Iruña
Leotz	Tutera
Lerga	Iruña
Lerin	Lizarra
Lesaka	Iruña
Lezaun	Lizarra
Ledea	Iruña
Lizoainibar-Arriasgoiti	Iruña
Lodosa	Lizarra
Longida	Iruña
Los Arcos	Lizarra

Irunberri	Iruña
Lukin	Lizarra
Luzaide	Iruña
Mañeru	Lizarra
Marañón	Lizarra
Martzilla	Tutera
Mélida	Tutera
Mendabia	Lizarra
Mendoza	Lizarra
Mendigorría	Tutera
Metauten	Lizarra
Milagro	Tutera
Mirafuentes	Lizarra
Miranda Arga	Tutera
Elo	Iruña
Monteagudo	Tutera
Morentin	Lizarra

Mues	Lizarra
Murchante	Tutera
Murieta	Lizarra
Murillo el Cuende	Tutera
Murillo el Fruto	Tutera
Muruzabal	Iruña
Nabaskoze	Iruña
Nazar	Lizarra
Noain (Elortzibar)	Iruña
Obanos	Iruña
Otsagabia	Iruña
Oko	Lizarra
Odieta	Iruña
Oitz	Iruña
Olaibar	Iruña
Olazti	Iruña
Olexoa	Lizarra

Erriberri	Tutera
Ollo	Iruña
Oloritz	Tutera
Orbaizeta	Iruña
Orbara	Iruña
Orisoain	Iruña
Orkoién	Iruña
Orontze	Iruña
Orotz-Betelu	Iruña
Orreaga	Iruña
Oteitza	Lizarra
Iruña	Iruña
Azkoién	Tutera
Petilla Aragoi	Iruña
Piedramillera	Lizarra
Pitillas	Tutera
Gares	Iruña

Puiu	Tutera
Ribaforada	Tutera
Erromantzatua	Iruña
Erronkari	Iruña
Zare	Iruña
Saldias	Iruña
Jaitz	Lizarra
San Adrián	Lizarra
San Martin Unx	Tutera
Zangoza	Iruña
Santsol	Lizarra
Santakara	Tutera
Sartze	Iruña
Sartaguda	Lizarra
Sesma	Lizarra
Sorlada	Lizarra
Sunbilla	Iruña

Tafalla	Tutera
Tebas-Muru Artederreta	Iruña
Tirapu	Iruña
Torralba del Río	Lizarra
Torres del Río	Lizarra
Tutera	Tutera
Tulebras	Tutera
Ukar	Iruña
Uharte Arakil	Iruña
Uxue	Tutera
Ultzama	Iruña
Untzitibar	Iruña
Untzue	Tutera
Urdazubi	Iruña
Urdiain	Iruña
Urraulgoiti	Iruña
Urraulbeiti	Iruña

Urrotz	Iruña
Urrotz-Hiria	Iruña
Urzainki	Iruña
Uterga	Iruña
Uztarroze	Iruña
Deierri	Lizarra
Valtierra	Tutera
Viana	Lizarra
Bidankoze	Iruña
Alesbes	Tutera
Villamayor de Monjardín	Lizarra
Villatuerta	Lizarra
Atarrabia	Iruña
Esa	Iruña
Zabaltza	Iruña
Ziordia	Iruña
Zizur Nagusia	Iruña

Zubieta	Iruña
Zugarramurdi	Iruña
Zuñiga	Lizarra

Iragarkiaren kodea: F2313533